



**GIPUZKOAKO A ETA B KADETE**  
**TXAPELKETA**

**TXAPELKETA-ARAUDIA**

## **I.- LEHIAKETA-EGUNAK**

Lehiaketa hau aurtengo denboraldian egingo da, Ohiko Batzarrak onartutako egutegi ofizialari jarraituz.

Euskal Federazioaren Txapelketan sartzeko faserako, federazio horrek ezarritako egutegia hartuko da kontuan.

## **II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK**

Lehiaketa honetan 2024-2025 denboraldian parte hartuko duten taldeak (mutiletan zein nesketan) bi multzotan banatuta egongo dira (A eta B).

Txapelketak zehazteko, IZENA EMATEAN zein kategoriatan jokatuko duten zehaztu beharko dute klubek (A edo B maila).

Izena emateko epea amaitu ondoren, klubei jakinaraziko zaie zein taldek eman duten izena.

## **III.- LEHIAKETA-FORMULA**

Lehiaketa honetan bi txapelketa antolatuko dira, eta taldeek erabakiko dute A edo B mailan parte hartuko duten.

A txapelketan zena eman duten talde-kopuruaren arabera, honako irizpide hauek ezarriko dira:

**Hogei talde baino gutxiago** – Lehen fasean, partida bakarrera jokatuko duten x taldeko hiru multzo egongo dira. Multzo bakoitzetik 2 talde sailkatuko dira. Bigarren fasean, bi partidatara jokatuko duten x taldeko hiru multzo osatuko dira.

**Hogei talde baino gehiago** – Lehen fasean, xx taldez osatutako bi multzo egongo dira, eta partida bakarrera jokatuko dute. Multzo bakoitzetik 3 talde sailkatuko dira. Bigarren fasean, partida bakarrera jokatuko duten xx taldeko hiru multzo osatuko dira.

**Txapelketaren azken sailkapen horrekin zehaztuko da postuaren arabera lortutako puntuazioa; puntuazio horrekin eta jubenil mailako taldearen puntuazioarekin erabakiko da zein klub joango den 2025-26ko Euskal Ligara igotzeko sektorera.**

**Puntuetan berdinketa egonez gero, KADETE taldeko azken sailkapenak ebatziko du egoera.**

B txapelketarako talde bakarra osatuko da, bi partidatara jokatuko duena.

#### **IV.- PARTIDEN DATAK ETA ORDUTEGIAK**

Txapelketako partida guztiak Egutegi Ofizialean aurreikusitako egunetan jokatuko dira, ezinbesteko arrazoiengatik edo Diziiplina Batzordeak hala erabakita atzeratzen direnak izan ezik.

Partidak programatuta egongo dira, eta ordutegia eta data aldatzeko aukera izango dute, Lehiaketa Araudi Orokorrek 3.5 atalean adierazitakoaren arabera. Diziiplina Batzordeak arau hori betetzen dela eta 3.10 atalean aurreikusitako zehapenak aplikatzearen direla bermatuko du, eta horren erantzule izango da.

#### **V.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK**

Kadete mailako jokalaritzat hartuko dira **2009 eta 2010 urteetan jaiotakoak eta behar bezala emandako federazio-lizentzia dutenak.**

Aldundiaren baimenarekin, 2024-2025 denboraldi honetan, talde bakoitzak **gehienez 23 jokalaria fitxatu ahal izango ditu, eta gutxienez hamar (10).**

Gutxienerako edo gehienerako kupoen osieran edozein anomalia **GEFko Diziiplina Batzordeak** onartu beharko du lehiaketa hasi aurretik.

Aurreko atalean ezarritako jokalarien kupo nagusian, gehienez hogeita hiru (23) plaza **izendun** bete ahal izango dira **bigarren urteko infantilekin (2011n jaiotakoak), BETI BERBERAK, eta beren klubeko infantil talderen batekoak badira.**

Nolanahi ere, jokalaria horiek (2011n jaiotakoak) izendunak izango dira, eta partida bakoitzean gehienez **lau (4)** egon ahal izango dira jokalaria-zerrendan. Horiek guztiak **aldeztu aurretik baimenduta egon beharko dira,** Lehiaketa Araudi Orokorren 2.2 atalean adierazitakoaren arabera; berariazko baimenik gabe, jokalaria-zerrenda BIDEGABEA izango da.

**Goragoko mailarako BAIMENDUTA dauden jokalariek (bigarren urteko infantilak, 2011koak) ez dute euren jatorrizko txapelketan parte hartzeko eskubidea galduko, baina ezin izango dute egun berean jokatu; bai, ordea, jardunaldi berean, bi kategoria desberdinetan.** Azaldutako guztia Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak antolatutako txapelketei dagokie.

##### **Torneoak eta kopak:**

Torneo eta kopetan, talde guztiek lau (4) jokalaria infantil baimendun eduki ahal izango dituzte jokalaria-zerrendan, ez dira izendunak izango eta jardunaldi bakoitzeko partida batean jokatu ahalko dute.

#### **VI.- ENTRENATZAILEAK, ORDEZKARIAK ETA OFIZIALAK**

Talde guztiak nahitaez inskribatu behar dira aktan, eta partida guztietan entrenatzaile edo entrenatzaile-laguntzailea eduki beharko dute (ONARTUTAKO TITULUDUNA).

**Talde batek Foru Aldundiak izapidetutako lizentzia erabiltzen badu, eskatutako titulazioa duela bermatu beharko du; hori egin ezean, jokalaria-zerrenda bidegabea izango da.**

Halaber, ZELAIKO ORDEZKARI baten presentzia fisikoa eduki beharko dute antolatzea egokitzen zaien norgehiagoketan, eta aktan inskribatu beharko dute. Betebehar horiek bete ezean, GEFko Partida eta Lehiaketa Araudiak zehaztutako zehapena jasoko du.

## **VII.- ARAU TEKNIKOAK**

- Kategoria honetan debekatuta dago substantzia itsasgarriak erabiltzea.
- Partidako lehen denboran ez da defentsa mistorik baimentzen, ezta 6-0 defentsarik ere, Gipuzkoako Federazioak antolatutako kadete mailako lehiaketetan.
- Ezingo dira jokalaria espezialistak soilik erasoan/defentsan aldatu, honako garapen eta argibide hauek kontuan hartuta:

### **GARAPENA:**

Partidak dirauen bitartean, erreserbak bere taldea baloiaren jabe denean soilik sartu ahal izango dira berdegunean ohar-hartzaile-kronometratzaileari abisatu gabe, eta ordezkatzeko dituzten jokalariek zelaia utzi badute.

### **AZALPENA:**

**TALDE BAT BALOIAREN JABE DELA ULERTU BEHAR DA:**

- A) Taldeko edozein jokalarik baloia duenean.
- B) Sakea edo aldeko jaurtiketa egin behar denean.

Taldeen arduradunek eskatutako time-outetan, aldaketak egin ditzakete bi taldeek. Gola eskuratu denean, gola sartu duen taldea baloiaren jabe ez dela ulertu behar da. Arauhaustea gertatuz gero, arau-hauslea bi minutuz kanporatuko da. Ezinbesteko kasuetan, lesioetan eta abarretan, eta epaileek alde zuzeneko joko-denbora gelditu ostean (time-out), baloiaren jabe ez den taldeak aldaketak egin ahal izango ditu, epaileen baimenarekin.

7 metroko kontrako jaurtiketarekin zigortutako talde batek atezaina aldatu nahi badu, baimena beharko du. Epaileek, unean uneko inguruabarren arabera, baloratuko dute ea time-outa ematen duten aldaketa gauzatzeko, baina time-out hori, joko-denbora gelditu ala ez, **BETI IZANGO DA BAIMENDUA**. Jokalari batek talde baten 7 metroko jaurtiketa guztiak egin ditzakeen bezala, atezain bakar batek jaurtiketa guztiak geldiaraz ditzake.

## **VIII.- XEDAPEN GEHIGARRIAK**

Gipuzkoako Kadete Ligako arau espezifiko hauek **OHIKO BATZARRAK** onartutako **FEDERAZIOAREN LEHIAKETA ARAUDI OROKORREAN** adierazitakoarekin osatuko dira.